

eban **Henri Aldizkaria** **Atamotz**

2002ko apirila 76. alea



Irrintzi:

35 urte hanka altxatzen

IRITZIZ-IRITZI: J.M. BEREZIARTUA "BERE"

ELKARRIZKETA: ASIER LARRAZA

ERREPORTAIA: ZER GERTATZEN DA GURE ZABORRAREKIN?



Garaialde Lizeoa

Labeaga 25, Urretxu. ☎ 943 72 21 12
Bulego ordutegia: goizeko 9etatik 11ak arte



kilometroak 2002

**elkarren
beharrean**

urretxu-zumarraga

URRETXU
ZUMARRAGA



IKASTOLA

BATXILERGOAK, D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide:

- Zientifiko-Teknikoa
- Osasun Zientziak
- Giza Zientziak
- Gizarte Zientziak



Aurrematrikula:

-Maiatzaren 2tik 10era

Matrikula:


-Uztailaren 3tik 5era

Informazio bilera:

-Apirilaren 25ean

-18:30etan

-Lizeoko bideo gelan



1965ean herriko koadrila dotoreenari ateratako argazkia.
Zutik: Joxe Azurmendi, Jesus Monasterio, Inazio Loiarde, Jose Mari Oiarzabal, Juantxo Loiarde eta Paco Monasterio.
Belauniko: Floren Oiarzabal, Txomin Egiguren eta Pascual.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>


Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599



Bidaurretako etxeetan izena emateko epea zabaldu da

Bidaurretan (Argixao ondoan) eraiki behar diren babes ofizialeko 102 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea apirilaren 8an ireki zen eta maiatzaren 10ean itxiko da.

Etxebizitza hauetako bat lortzeko bete beharreko baldintzak honakoak dira: etxebizitzarik ez izatea, azken bi urteetan Zumarragako edo mankomunitateko gainontzeko herrietako biztanlea izatea (zumarragan bizi direnek lehentasuna izango dute), urtean 33.056 euro baino gutxiago eta 9.015 euro baino gehiago irabaztea eta etxebizitza erosteko laguntzarik ez jasotzea.

Honako agiriak aurkeztu behar dira: eskaera eredu ofiziala, identifikazio, bizileku, elbarritasun eta etxebizitza beharrari buruzko agiriak eta diru-sarriaren frogagiria. Hauek guztiak,

Zumarragako Udaletxean eta Kutxaren zein Lankide Aurrezkiaren bulegoetan aurkez daitezke.

Etxebizitzaren zozketa urte amaieran egitea espero da. Zozketa honetan, 5 etxebizitza elbarrientzat, 70 hogeita hamabost urtetik beherakoentzat eta 2 guraso bakarreko familientzat izango dira. Gainontzeko 25 etxebizitzak kupo orokorrekoak izango dira.

102 etxebizitzetatik 93 hiru gelatakoak izango dira eta gainontzeko 9ak bi gelatakoak. Etxebizitzek 60 eta 89 m² arteko azalera izango dute. Hiru geletako 74 m²-tako etxebizitza batek 83.168 euro balioko du gutxigorabehera (kopuru honi BEZ gehitu behar zaio). 30 m²-ko garaje batek 10.818 euro balioko du eta 10 m²-ko trastelekuak 3.606 euro inguru.

Zineklub emanaldiak, aspaldiko partez

Hilaren 12an, ButaK 21 izena hartu duen Urretxu-Zumarragako zineklubak bere lehenengo emanaldia eskaini zuen.


Zineklubaren estreinaldia oso berezia izango zen. Izan ere, "No man's land" filmea ikusi aurretik, duela 15 bat urte herrian grabatutako bideo bat ikusteko aukera izan zen. Bideo honetan, Zelai-Arztin egindako Donostiako Zinemaldiaren parodia bat grabatu zen.

ButaK 21 zineklubak, uztaila bitartean, hamabostero filme bat eskainiko du. Lehenengo ziklo hau Donostiako Zinemaldirik pasa diren sei filmek osatzen dute. Ondorengo emanaldiak, seguraski, ostegunetan izango dira, gaueko 9etan.

Hala bada, hurrengo filme emanaldia apirilaren 25ean izango da. Egun horretan, Jose Luis Guerin-en "En construcción" filmea ikusteko aukera izango dugu. Maiatzaren 9an, berriz, "Y tu mamá también" izango da ikusgai. Maiatzaren 23an, "La ciénaga" filmean txanda helduko da. Ekainean, lehenengo ziklo honetako azken bi filmeak izango dira ikusgai: 6an "Elling" filme norbegiarra eta 20an Joel Coen-en "The man who wasn't there".

Zineklub emanaldiak udazkenean itzuliko dira. Lehenengo saio hauetan, zineklubeko arduradunek inkesta batzuk pasako dizkiete ikusleei eta, ikusleen proposamenetan oinarriturik, ziklo berriak prestatuko dituzte udazkenerako.

Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Argazkia: Peio Etxeberria (Goierri).

Lolo Sainz eta Josean Aldalur Urretxun izan ziren

Lolo Sainz eta Josean Aldalur saskibaloitza entrenatzaileak Goierri taldearen entrenamendua zuzendu zuten hilaren 12an, Urretxuko Aldiri Kiroldegian. "Clinic" izenez ezagutzen den saioa, Goierri K.E.-k bere 50. urteurrena ospatzeko antolatu duen ekitaldietako bat da.

Hilaren 12ko entrenamendura Urretxu eta Zumarragako saskibaloitzaletu

ugari joan ziren. Hauek guztiak, besteak beste, espainiar estatuko hautatzailea eta Askatuak taldeko entrenatzailea izan diren Lolo Sainzen eta Josean Aldalurren lana eta gomendioak adi-adi jarraitu zituzten.

Entrenamenduaren ondoren, Goierri Kirol Elkarteak arduradunek, zale-tuek eta bi entrenatzaileek Txirimiri elkar-tean afaldu zuten.



Itsaski zozketa


Argazkian pozik asko ikusten duzuen Alberto Bilbao "Biriki" k irabazi zuen Zintzo-Mintzok antolatzen duen itsaski zozketako martxo-koko zozketa. Itsaskiak ospitaleko gaixoentzat prestatu ote ditu, euren egonaldia pozteko asmoz? Apirileko zozketa, berriz, Lourdes Sanzek irabazi du. Zorionak bie!

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboaren 10. urteurrena

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa txalapartari taldeak 10 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Hauetako lehenengoa txalaparta ikastaroa da. Horrez gain, ZSK-koek beraiekin txalaparta jotzen ikasi duten herritar guztiekin afari bat egiteko eta sona handiko rock talde bat herrira ekartzeko asmoa dute.

Baina urteurreneko erregea ZSK-koak grabatzen ari diren diskoa da. Zazpi abestiz osatutako disko honen grabaketan, Urretxu eta Zumarragako musikari asko parte hartzen ari da. Grabaketa lanetan ZSK-koak Borja Aranbururen laguntza dute. Dena ondo badoa, hil honetan diskoaren grabaketa bukatuko dute eta San Juanetan kaleratuko dute.

Disko hau ZSK-koek kaleratuko duten lehen da, baina euren txalaparten soinua beste hainbat diskotan entzun daiteke. Esaterako, duela urte batzuk SFO herriko taldeak grabatutako maketan parte hartu zuten eta Rogelio Botanz abeslari kanariar-legazpiarraren azken diskoko abesti baterako ere txalaparta jo dute.



Ormaiztegi-Zumarraga arteko autobidearen erakusketa

Hilaren 28ra arte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailak Zumarragako liburutegiko sarreran jarri duen Ormaiztegi-Zumarraga autobideari buruzko erakusketa ikusgai izango da. Autobide honen lanak ekainean hasiko dira eta bi urteko epean amaitua egotea espero da.

Erakusketa hau, Ormaiztegitik Bergarara joango den errepidea erakusten duen maketaz, ikusentzuneoaz eta azalpen taulez osatua dago.

Erakusketaren inagurazio ekitaldian, Antton Jaime errepide diputatua, Foru Aldundiko beste hainbat ordezkari eta Legazpi, Urretxu eta Zumarragako alkateak eta zinegotzi batzuk izan ziren.

Antton Jaimek esan zuenez, "legealdi honen hasieran obra hau aurrera ateratzeko konpromisoa hartu genuen. Askok gure borondatea zalantzan jarri dute, baina obra esleituta edukitzeak gure borondatea zalantzan jarri dutenak gezurretan aritu direla erakusten du".

Ormaiztegi-Zumarraga autobidearen obra Mariezkurrena enpresari esleitu diote 38.546.958 eurotan. Mariezkurrenak 5,5 kilometroko luzera duen autobidea egingo du. Autobide



honek, hiru bidezubi izango ditu, bi gain pasabide, bi behe pasabide eta zortzi eustorma.

Antton Jaimek, hau Beasain-Durango ardatzarekin hartu zuten konpromiso bakarra ez dela gogorazi zuen. "Trailean Bergarako hegoaldeko saihebidia irekiko da eta honek eskualdeko herritar askoren mesederako izango da. Bestalde, Zumarragatik Bergarara doan errepidearen proiektua idazten ari dira eta datorren urte hasierarako bukatuko dute".

Jaime Zumarraga-Begara errepidearen bide kopuruaren inguruan sortu

den eztabaidaz ere mintzatu zen. "Berrito ere, bide kopuru egokia zein den aztertuko dugu. Ez ezazue zalantzarik izan: aukeratuko den irtenbidea eskualde honek behar duena izango da. Baina, irtenbide teknikoak aurrera ateratzeko, finantziarioa ere kontuan izan behar da. Obra hau aurrera ateratzeko behar diren diru kopuruak oso handiak dira. Zumarragatik Bergara joango den errepide berria bide azkarra bezala egiten badugu, 12.000 milioi pezetako kostea izango du. Autobidea egiten badugu, berriz, 20.000 milioi pezetako kostea izango du".



Urretxuko txistulariak 4 - Antziñako Ama Taldea 2

Urretxuko Txistulari Taldeak eta Zumarragako Antzinako Ama Txistulari Taldeak martxoaren 9an ezagunen arteko futbol partida jokatu zuten Ikastolako futbol zelaian (urretxuarren eta zumarragarren artean ezin baita adiskidantzakorik jokatu). Zumarragarrek oso gaizki hasi ziren, partida aurreko opari trukaketan Urretxukoei zer eta Antzinako Amaren irudia oparitu baitzieten! Txistua jotzen laguntzen dien Antziñako Amak ez zien hau barkatu eta, historian lehenengoz, urretxuarren alde jarri zen. Ondorioz, partida urre-

txuarrek irabazi zuten, 4 eta 2 hain zuzen ere.

Amaieran eskua eman zioten elkarri eta bi taldeek umorez eta kiroltasunez hartu zuten partidaren emaitza. Eta ondoren, elkarrekin afaltzera eta parranda egitera joan ziren. Txistularietako batek esan digunez, partida hau bi taldeen artean dagoen giro ona mantentzeko eta harremana sendotzeko egin zuten. Batzuek hitz hauek oso aintzakotzat hartu zituzten eta, geroztik, bi txistulari taldeen arteko harremana sakontzeko lan handia egiten ari dira.

OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Gogoratuko duzuen bezela, azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkarira-ko **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2002. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Oraingoan ere zeure esku geratzen da diru-kopurua aukeratzea. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

-6 euro

-9 euro

-12 euro

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria:



J. M. Bereziartua, "Bere"

Ezker abertzalearen inguruan

Ezker abertzalearen munduan, militante edo laguntzaile bezala, urte batzuk ibili naiz nire aletxoia ematen. Eta ezker abertzalearen barruan ezagutu ditut herriko seme-alabarik emankorrenetarikoak eta langileenak herri-gintzan.

Kritikarik zorrotzenak lagunei eta hurbileko jendea-ri egin behar zaizkiela da nire teorietako bat, horrelako kritikak onuragarriak izan daitezkeen ustean. Eta teoria horri jarraiki, gaur egun ezker abertzaleak daraman jokaerari buruzko nire iritzia plazaratu nahi nuke.

Egia da estatu espainiar eta frantziarrak egurra ematen ari direla modu beldurgarrian. Era berean, egia da hemengo alderdi "abertzaleek" ez dutela gauza handirik egiten horri aurre egiteko. Baina horrek ezin du estali ezker abertzalearen porrota. Gaur egun, Batasunak ez dauka proiektuak aurrera ateratzeko gaitasunik, eta planteatzen dituen alternatibak hutsen gelditzen dira. Egia da komunikabideak eta beste alderdiak saiatzen direla alternatiba horiek ezeztatzen, baina uste dut Batasunak hori jadanik asumituta eduki beharko lukeela eta irudimenez egin beharko liokeela aurre egoera honi.

Bestalde, ETAREN ekintza armatuak gero eta oztopo handiagoak dira zenbait sektorek jarrera soberanista eta autodeterminazioaren aldekoa agertu dezaten. Gaur egun, Euskal Herrian oso zaila da marko berri baten alde egotea, autodeterminazioaren aldeko jarrera agertzea. Horrek ezker abertzalearen inguruan egongo liratekeen sektore asko uxatu ditu. Eta hor, nire ustez, nabaria da borroka armatuak daukan eragina. Norbaitek esango du jarrera autodeterminista batek ez duela esan nahi borroka

armatua onartzen denik; baina, hor ere, estatuen aparatuek ondo bete dute euren lana. Hori horrela izanik, gaur egun ia gauza bera dira, askoren buruan, independentista eta terrorista hitzak. Horri ezin zaio erantzun estatuek dutela errua esanez. Hala bada ere, horrek ez du ezer konpontzen, hori dagoeneko bereganatuta eduki beharko bailuke ezker abertzaleak.

Ez diot ekingo biolentzia erabiltzea zilegi den hala ez debate antzuarri. Tresna bat besterik ez da biolentzia, eta argi dago ETA 20.000 lagunez osatutako armada ondo hornitua balitz, ez litzatekeela erakunde terrorista bat izango. Beraz, ez naiz sartuko adjektiboen gerra txotxolo horretan.

Hori bai, gauza bat argi dago, gure herria zauritzen duen gatazka (kontenzioso hitzak berdin balio du) honetan betidanik egon da oinarritzko arau bat: "Nirekin edo nire aurka". Horrek arazo bat dakar, jendea bietako bat aukeratzera behartzen badugu, gerta daiteke gure aurka egitea. Nire ustez hori ari zaio gertatzen erakunde armatuari: gehiegi ari da behartzen egoera. Horren ondorioz, zalan-tzan leudekeen giza sektore asko abertzaletasunaren aurka jartzen ari dira eta, horrek, ez dio inongo mesederik egiten ezker abertzaleari.

Amaitzeko eta laburtuz, errespetu handia diet sufritzeko gaitasuna eta eskuzabaltasuna agertu duten hainbat eta hainbat militanteri, baina uste dut diskurtsoa aldatzeko garaia iritsi dela, eta etsaiak bilatu beharrean bidelagunak topatu behar dituela ezker abertzaleak. Lana ez da erraza, argi dago; baina, errazagoa egiten zaio bere horretan jarraitzea?

BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



Zinekluba abian jarri da. Joateko asmorik ba al duzu?




Jon Egia

Zenbat eta zine emanaldi gehiago, hobe. Bestela, kalean aspertu egiten gara. Filmeak lagunartean oso gustura ikusten dira. Gainera, zineklubean botatzen dituzten filmek normalean botatzen dituztenak baino hobeak dira.



Mirari Azkarate

Zinekluba abian jarri izana oso ondo iruditzen zait. Lehenengo emanaldira ez nintzen joan. Bigarren emanaldian bota behar duten "En construcción" ikusia dut eta asko gustatu zitzaidan. Zineklubera joateko asmoa dut.



Asier Mantekon

Zinekluba abian jarri izana oso ondo iruditzen zait. Zinera askotan joaten naiz. Filme komertzialak zein zineklubetan botatzen dituztenak gustatzen zaizkit.




Pello Biain

Zinezaleontzat oso berri ona da, zine komertzialaz gain, mundua sentitzeko, ulertzeko eta ikusteko era diferenteak erakusten dizkiguten film aberasgarriez gozatu ahal izango garelako.



Itsaso Fraile

Zinekluba jartzea oso ondo iruditzen zait. Nire koadrilakoak askotan joaten dira inguruko herrietako zineklubetara eta ni ere, ahal dudanean, joaten naiz.



Iker Mendizabal

Zinera askotan joaten naiz. Normalean igandeetan kanpora eta astelehenean Zelai-Aritzira. Zineklubeko lehenengo saiora ez nintzen joan, baina badut joateko gogoia.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros Enmarkatzeak

Arte ederrak

Dekorazioa

Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Irrintzi: 35 urte



Hilabete honetan, udaberriro bezala, Urretxu-Zumarragako Irrintzi Dantza Taldeak dantza jaialdia eskainiko du Zumarragako Beloki pilotalekuan. Baina, apirilaren 27ko aurtengo jaialdia oso berezia izango da. Izan ere, Irrintzik aurten 35 urte betetzen ditu. Hori dela eta, urte hauetan guztietan dantza taldean ibili diren lagunak gonbi-

datu dituzte jaialdian parte har dezaten.

Azken asteotan, Irrintziko lehengo eta egungo dantzariak elkarrekin entsaiatzen ari dira Lizeo azpian. Entsaio hauetako batean, dantza taldean 27 eta 16 urte daramatzaten Jesus Mari Garraldarekin eta Asier Egearekin Irrintziren lehenaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiten izan gara.

Jesus Mari Garraldak azaldu digunez, duela 35 urte La Sallen euskal kulturaren inguruko talde asko sortu ziren eta hauetako bat Irrintzi Dantza Taldea izan zen. "Garai hartan Zumarragan eta Urretxun hutsune handia zegoen, baina baita zer edo zer egiteko gogoia zuen jendea ere. Hori dela eta, ekimena gogo handiz hartu zuen jende askok".

Hasierako talde hartan, ikastetxean bezala, mutilak soilik aritzen ziren, baina denbora gutxira neskak elkartu zitzaizkien. "Dantza talde bat sendotu nahi bada, argi dago neskak ere behar dituzula. Gustura hartuko zuten 16 urteko mutil haiek taldean neskak sartzea!".

Garai haietan, zailtasun nagusiak

bi omen ziren: dirua lortzea eta inguruko herrietara ateratzeko garraioa lortzea. "Egun edonork autoa du, baina garai hartan zailagoa zen alde batetik bestera ibiltzea. Horretaz gain, dirua lortzeko arazo handiak zituzten. Astero euren poltsikotik duro bat ere jartzen zuten. Gauzak egiteko gogo handia zuten, arazo guztiak gaintzen zituzten. Egun, alderantziz gertatzen da: dirua erraz lortzen da, baina jendea dantza taldeetara erakartzea zailagoa da. Irteera ugari antolatu behar dira jendea aspertu ez dadin".

Horretaz gain, dantza taldeen munduan aldaketa gehiago ere eman dira Asier Egearen ustez. "Egun, Dantzari Biltzarra dago eta dena bateratu nahian dabilta. Ikastaroak antolatzen dira dantza

bakoitza nola egin behar den erakusteko. Lehen herri bakoitzean bertako erara dantzatzen zen". Jesus Mariri hau ez zaio gaizki iruditzen, baina... "Ikerketa aldetik gauza asko egin dira, dantzari oso onak daude... baina egungo dantzarien artean kasta gutxi ikusten da. Oso dantzari onak daude, baina grazia falta zaie. Askotan, ballet-folklorikoa egiten ari direla dirudi".

Bestalde, dantzariak sekula baino prestatuagoak daude Jesus Mariren iritziz. "Jendea askoz prestatuagoa dator musika

"Jendea prestatuagoa dator. Neska gehiago ere, sekula baino gehiago izan"

dantzan



aldetik, gorputz aldetik... Neskek, batez ere, sekulako aldaketa izan dute. Lehen neskek oso kirol gutxi egiten zuten eta egun mutilen mailan ibiltzen dira. Gainera, neskek askoz ere parte-hartzaileagoak dira".

Aldaketa hauek guztiak, aldi berean gizartean emandako aldaketen ondorioa direla argi ikusten da. "Guretzat Bergarara joatea oso irteera polita zen eta bertan sekulako parranda egiten genuen. Egun, jendearentzat irteera ona Edinburgora joatea da... Honengatik guztiagatik jendea motibatzea oso zaila da. Dena den, gu beti taldeko giroa mantentzen saiatu gara eta honetan datza gure taldearen indarra". Asier iritzi berekoa da. "Dantza egiten dugun lagun talde bat gara".

Honi esker, Irrintzik urte hauetan guztietan dantzari kopuru altua izatea lortu du. Egun 120 lagun inguruk osatzen dute dantza taldea.

Hauetatik 35 helduen taldean ari dira eta, gainontzekoak, haurren sei taldeetan. "Taldeen gora behera asko izaten dira. Lehen soldaduskak taldeko kideen kopuruan eragin handia izaten zuten. Egun, ikasketak dira eragin handia dutenak. Jendea kanpora joaten da ikastera eta taldearekin kontaktua galtzen du. Dena den, 20 urtetik gorako oso jende gutxi uzten du dantza taldea".

Irrintziko dantzariak Euskal Herri osoko dantzak dantzaten dituzte, nahiz eta garai batean Nafarroa eta Bizkaia aldekoak ikasteko joera zuten. "Lehen mutilok Bizkaiko dantza asko dantzaten genituen, baina egun Arabako asko ere dantzaten ditugu. Hutsune handi bat genuen eta hau betetzen saiatu gara".

Dantza hauen guztien artean, Zumarragako ezpatadantzak garrantzi berezia du, noski. Dena den, Jesus Marik eta Asierrek Irrintzi Zumarragako ezpatadantza dantzaten duen taldea baino zerbait gehiago dela argi utzi nahi dute. "Ezpatadantza dantzatzeko konpromisoa hartu genuen eta oso gustura eta harro egiten dugu. Ahal badugu,

estatuagoa
kek, batez
ko aldaketa
dute"

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas N. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA



JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura
Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URKI

liburudenda

Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA





ez diogu sekula Antion ezpatadantza dantzazeari utziko, baina beste dantza batzuk ere egiten ditugu".

Izan ere, Irrintziko dantzariak ez dute hasieratik Zumarragako ezpatadantza dantzaten. "Joxe ... ibiltzen zen mutil batzuei ezpatadantza erakusten. Urte batean ez zituen nahikoa mutil lortu eta oso arduratuta zegoen. La Sallen dantza talde bat sortu zela jakin zuen eta guregana jo zuen. Hasieran, Irrintzikoak sokan sartu ziren. 1969ko argazkietan jada Irrintziko dantzariak azaltzen dira Antion. Pixkanaka, gero eta Irrintziko jende gehiago sartu zen eta gure esku gelditu zen".

Zumarragako ezpatadantzari mesede handia egin zion Irrintzik ardura hartzeak. "Jendeak urtero Antion ezpatadantza ikusiko duela ziurtzat jotzen du, baina lan handia egin behar da.

Ezpatadantzak etorkizuna izan dezan, taldean dantza egingo duten haurrak lortu behar dituzu, gustura izan behar dituzu helduen taldera iritsi daitezen, gero ezpatadantza irakasten diezu... Gurpil hau gelditzearen arriskua beti hor dago. Futboleak bezala, harrobiarekin lan egin behar da. Duela 200 urte inguru herrikoek dantza egiteari utzi zioten eta Ordiziako dantzariak ekarri behar izan zituzten".

Baina, ezpatadantza eta gainontzeko dantzak dantzatzeko, dantzariak gain musikariak ere behar dira. Urte hauetan guztietan, hamaika txistulari aritu dira Irrintzikoekin batera. "Urretxuko eta Zumarragako txistulari asko ibili dira gurekin. Denek atea zabalik dituzte Irrintzin aritzeko".

Hilabete honetan, guztiak, Irrintzi dantza taldearen urteurrena ospatuko dute. Ekitaldi nagusia urtero Aste

Santuaren ondoren antolatzen duten dantza jaialdia izango da. Aurtengoa, urteurrenekoa izanik, oso berezia izango da. "Irrintziko kideak izan diren guztiei deialdia luzatu diegu parte har dezaten. Jaialdian denok batera dantza egingo dugu.". Dantza jaialdia hilaren 27an izango da, gaueko 10:30etan, Zumarragako Beloki Pilotalekuan.

Jesus Marik eta Asierrek esan digutenez, "taldean harremanak asko landu ditugunez, bost urtetan behin taldea utzi dutenekin dantza egiten dugu jaialdian. Jaialdia antolatzeak lan handia ematen digu urtero, baina baita poz handia ere. Izan ere, urtero dantza berriak ikastera behartuta gaude jaialdia urtero berdina izan ez dadin. Bestalde, urtero eskenotokia ezberdinak prestatzen ditugu: herriko plaza bat, sagardotegi bat... Baina jaialdia antolatzeak merezi du, lanerako gogoia piztu eta taldea indartzen baitu".



Badator Kilometroak 2002!



Geroz eta denbora gutxiago falta da aurten Urretxu-Zumarragan izango dugun ekitaldi nagusirako. Hala izanik, badira hilabete batzuk Kilometroak 2002ren antolaketako batzorde ezberdinetako lagunak lanean jo eta ke ari direla. Abenduan, batzorde ezberdinetan egindako lanaren lehen emaitzak ikusteko aukera izan genuen. Abenduaren leko arropa desfilean neguko arropa, logotipoa eta lema ezagutu genituen. Santa Lutzi egunean, berriz, lehenengoz txosna jarri zen.

Orain, udaberria heldu da eta, zuhaitzak bezala, Kilometroak 2002ko lantaldeak ere euren fruituak ematen hasi dira. Arropa dendan, adibidez, udaberri eta uda denboraldiko arropa aurki dezakegu jada. Arropa salmenta batzordeko kideek Kilometroak 2002ko jantziak hastear dauden Euskal Herriko herrietako festa ezberdinetan ere salgai jarriko dituzte. Horrez gain, Urbil eta Garberako Eroski dendetan ere aurki ditzakegu.

Bestalde, Kilometroak festaren inguruan, urtero, hainbat kultur ekitaldi ere izaten dira eta, aurten ere hala izango da. Hilaren 30ean Txan Magoa izango da Zumarragako Zelai-Arizti antzokian. Sarrerak Legazpi kaleko Kilometroak 2002 dendan eskura daitezke, 4 eurotan, hilaren 25etik 29ra.

Maiatzaren 11n, gaztedia batzordeak antolatutako bi ekitaldi egongo dira. Arratsaldeko 6etan, Kalebarren-Areizaga plazan, bertso-eskolakoek bertso trama berria aurkeztuko dute. 7etatik 8etara, berriz, Txotx Festa izango da. Egun berean, arratsaldeko 6:30etan Ederrena pilotale-

kuan, Gastronomía Lehiaketa izango da. Parte hartzaileek (Ikastolako gurasoak, bi herrietako koadrilak eta elkarreetako kideak) zurrurutuna prestatuko dute. Gaueko 9etan sari banaketa izango da eta, ondoren, prestatutakoa afalduko dute. Afalostean Triki-zio taldearen saioa izango da.

Ekainaren 7an, berriz, Eskolarteko Bertso Txapelketaren finala izango da Beloki pilotalekuan. Ekitaldi hau, normalean, Kilometroak antolatzen duen herrian ospatzen denez, aurten Urretxu-Zumarragan izango dugu.

Ez da hau, Kilometroak 2002ko ekitaldien barne, ekainean izango dugun ekitaldi bakarra. Ekainaren 8an umeen eguna izango da. Bestalde, kultura batzordea, herriko musikari askoren partaidetza izango duen kantu emanaldi bat ere prestatzen ari da. Emanaldi hau, seguraski, ekainaren 15ean izango da gaueko 10:30etan Ederrena pilotalekuan.

Gaztedi eta kultura batzordeek urriaren 6a bitartean beste ekitaldi batzuk prestatzeko asmoa ere badute, baina, hauen berri zehatzagoa beranduago emango dizuegu.

Aurki Kilometroak 2002ri buruzko informazio zabalagoa eta zehatzagoa jasoko duzue. Izan ere, Ikastola Kilometroak 2002ri buruzko aldizkari mardula prestatzen ari da eta Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako etxe guztietan doan banatuko da maiatza hasieran. Aldizkari honek, Ikastolaren historiaren, Kilometroak 85en, antolaketan dabil-tzan batzordeen eta euren lanaren... berri emango dizue.



RENEDO argazkiak

Jarunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Asier Larraza: "argazkiek mezua

Martxoan, Asier Larraza herritarren, Ari-Pekka Auvinen finlandarren eta Olaf Knarrik holandarraren "Lauantai" argazki erakusketa ikusgai izan da Itarte Etxean eta Juan de Lizarazu aretoan. Asierrek beste bi gazte hauekin argazkigintza ikasketak egin zituen Londresen eta, 1998ko udan, hilero elkarri argazki bat bidaltzen hasi ziren. Helburua, irudien bitartez komunikatzea zen. Argazki hauek izan dira, hain zuzen ere, Finlandia eta Holandatik pasatu ondoren, Urretxun eta Zumarragan ikusgai izan ditugunak.

Nondik nora ibili zara argazkigintza ikasten?

Donostian urte pare bat eman nuen eta, ondoren, Ingalaterrara joan nintzen. Bertan, lau urte eman nituen argazkigintza ikasten. Institutuko garaietan ere, ordu gehienak kultur etxean igarotzen nituen argazkiak errebelatzen. Duela 6 urte, Donostian eskola txiki bat soilik zegoen eta teknika besterik ez zuten irakasten. Hori dela eta, Londresera argazkigintza litzentziatura ikastera joatea erabaki nuen.

Esperientzia ona izan al zen Londresekoa?

Ikasketak oso onak ziren, baina bertako bizimodua oso gogorra da. Bertan, eguneroko bizimodua denbora eta diruaren menpe izaten da. Oporretara edo diru askorekin joatea gauza bat da, baina bertan ikasteko lana egin behar baduzu oso esperientzia gogorra da. Ingalaterrak duen onena kultura nahasketa da eta kolaborazio hau ere hortik sortu da. Bestalde, argazkilaritzan asko ikasi dut. Izan ere, berrikuntza nagusiak eta korronte berriak berehala ikus daitezke han.

Nola sortu zen "Lauantai" egitasmoa?

Ikasketak hasi genituenean ezagutu genuen elkar hirurok eta eztabaidak izaten genituen: irudiekin zer bilatu behar den, zein balore duen argazkilaritzak eta baita irudiek ere, zein den irudien fun-

tzioa... Udan bakoitza bere herrira joaten ginenez, batak besteari, argazkien bidez, gauzak kontatzea erabaki genuen. Hitzak nola erabili, hobeto edo okerrago, denok dakigu. Irudiek egungo kulturaren sekulako boterea dute, baina ez dakigu zenbat komunikatzen duten, mezurik duten, mezu hau hitzekin aldera daitekeen... Hilabete batzuk pasatu zirenean, emaitzak ikusi genituen eta egitasmoarekin jarraitzeak merezi zuela erabaki genuen.

Zer edo zer adieraztea bilatzen al zenuen?

Ez dago mezu konkreturik. Ez diogu ikusleari ezer zehatzik esan nahi, jendeak bere istorioa aurkitzea nahi dugu. Baita jendearengan sentsazioak sortzea ere. Ez zaigu inporta sentsazioak erabat ezberdinak izatea. Egungo argazkigintzaren "tendentzia" nagusia ideiak irudien bitartez

"Espazio batek sortzen zaitu eta, gero, sortu zaituen hori ikusten da edonon ateratako argazki batean"

ilustratzea da. Guk argazki batzuk egin nahi ditugu eta hauek mezua sortzen dutenak izan daitezela, ez alderantziz.

Hiruen argazkien artean alde handiak egongo dira...

Bai, baina oso gauza bitxia gertatu da: elkarri bidali genizkion lehenengo argazkiak oso ezberdinak ziren, baina, komunikazio horren bitartez,

erakusketa honetarako lengoaia mota bat, gauzak begiratzeko modu bat... sortu dela esango nuke. Gutako bakoitza besteen eragina jasotzen hasi da eta geroz eta zailagoa da bereiztea norena den argazki bakoitza.

Argazki guztiak Euskal Herrian ateral al zenituen?

Andaluzian, Portugalen, Ingalaterran... ateratako argazkiak ere badaude. Prozesu bat ematen da: hemen jaiotzeak izaera bat eta kultura bat ematen dizu eta hau zure irudietan islatzen da. Ispilu bat izango balitz bezala: espazio batek sortzen zaitu eta, gero, zuk sortzen duzunean, sortu zaituen hori ikusten da edonon ateratako argazki batean.

Udan soilik bidaltzen al zenizkioten elkarri argazkiak?



sortzea nahi dut, ez alderantziz”

kiak?

Baita elkarrengandik urruntzen ginen gainontzekoetan ere. Elkarrekin geundenean ez zuen logika handirik argazkiak bidaltzeak. Urruntze honen ondorioz, emaitza sortzen hasi zen: erreferente kultural eta geografikoak nola azaltzen diren argazkietan. Bakoitza kultura eta herri ezberdinekoa da eta ezinezkoa da hau ez nabaritzea. Hiruron izaera ere islatzen zen. Honela hiru urtez jarraitu genuen, egitasmoaren lehen fasea bukatutzat eman genuen eta lehenengo erakusketa antolatuta eman genuen. Argazkiak jende gehiagok ikustea garrantzitsua zela erabaki genuen.

Jendeak nola erantzun zuen?

Oso erakusketa irekia dela eta maila askotan funtzionatzen duela uste dugu. Argazkiak banaka begiratu gero, bisualki edo estetikoki funtzionatzen du. Argazki guztiak elkarrekin jarrita, berriz, jende gehienak istorioa osatzeko gaitasuna du. Ez istorio objektibo edo konkretu bat osatzeko gaitasuna, argazkien arteko harremana bilatzeko, progresio bat ikusteko gaitasuna baizik. Badago argazkien era bateko pertzepzioa eta hori zen nahi genuena: norberak bere istorioa sortzea.

Jendearen erreakzioa ezberdina izan al da toki ezberdinetan?

Hemen “espontaneoagoa” izaten da. Irudiari begiratzen zaio eta, berehala, harremana sortzen da irudiarekin edo alde batera uzten da. Finlandian oso analitikoak dira eta irudia

aztertzen dute iritzia eman aurretik. Proiektu hau hasi aurretik esperimentu bat egin genuen Finlandian, Italian eta Legazpin: haurrei argazki berdinak erakutsi genizkien eta erreakzioak guztiz ezberdinak izan ziren. Italian festa antzeko bat sortu zen argazkien inguruan eta haur guztiak builaka hasi ziren. Finlandian erabateko isiltasuna nagusitu zen. Legazpin erreakzioa “oso imaginatiboa” izan zen: haurrek istorioak garatzen zituzten eskatu gabe. Informazio eta ezagupen mailan hain garatuak ez dauden arren, haurren artean herrialde ezberdinen arteko aldeak ikusten dira jada.

Ondoren, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zenuten...

Bigarren fasea hasi zenean gauza dexente pasatu ziren. Era berean jarraitzeak ez zuen zentzu handirik eta aukera berriak planteatzen hasi ginen. Hori dela eta, formalki erabat aldatzea erabaki

Haurrek ere ez dituzte gauzak arrazoi zehatz batengatik egiten. Egin egiten dituzte eta horrek esperientzia eskaintzen die. Abiapuntua hutsa izan daiteke, garrantzitsuena hortik aurrera sortuko dena da.

Zer asmo duzu etorkizunari begira?

Nik neuk nahi dudana lan egitea eta lan horrekin bizitzeko adina ateratzea da. Ez dut nahi handirik. Izan ere, arte merkatua, egun, hori da: merkatu bat. Orduan, argazkilaria ona baino gehiago merkatari ona izan behar da. Ez dut horretan sartu nahi. Argazkilaritza irakaslea naiz Donostiako eskola batean, publizitate agentzi batentzat lanak egiten ditut eta erreportaiak ere egiten ditut. Saltzeko helburuarekin lan egiten baduzu, jada ez da lan pertsonala. Hori dela eta, nahiago dut agentzi batentzat lan egin. Honen guztiaren ondorioz, orainarte egin ditudan erakusketa gehienak taldeka egindakoak izan dira.

Zer dela eta?

Taldean lan eginez gero, zerbait komunikatzeko edo zerbait sortzeko konpromisoa hartzen da eta besteen lanekin ere ikasten da. Nik neuk esperimentazio hutsa egiten dut eta hau arriskutsua izan daiteke: ez nuke hau hitzen bitartez azaldu nahi, ez nuke mugatu nahi... eta erakusketa bat egitea zure lanari mugak jartzea da. Azalpena egon behar da, metodologia, mezua... eta maila honetan konpromiso dexente hartu behar dira. Momentuz, ez nago neure lanarekin konpromiso hori hartzeko prest.

Esperimentazio pertsonalari dagokionez, zertan zabilta?

Betiko zalantza horiei erantzunak bilatzen. Inplikazio pertsonal handia dago eta zeure argazkien bitartez zure burua adierazten saiatzen zara. Baita zure inguruaren ulerpena lortzen. Espazioa asko interesatzen zait: paisaia, pertsonak, arkitectura... hartzen ditu eta asko esaten du kultura bati buruz. Honek gizartea zein norbanakoa baldintzatzen du. Espazioaren bitartez gauza asko uler daitezke. Nire lanetan espazioaren barruan interbentzioa egiten dut inguratzen gaituen guztia hobe ulertzeko.


“Ez dago helburua bilatu beharrik. Lanean hasteak ematen dizkizu erantzunak eta bultzatzen zaitu alde batera edo bestera”

genuen. Ordurarte hilero koloretan ateratako tamaina bereko argazki bat bidaltzen genion elkarri. Bigarren fasean formaukera zabaltzea erabaki genuen, baina argazkiak mamirik gabe gelditu ziren. Hau ikusirik, aspektu formalei baino mamiari garrantzi handiagoa ematen hastea erabaki genuen.

Nondik nora ibili behar da erakusketa hau?

Donostiara eramatea gustatuko litzaidake eta, ondoren, argazkietan azaltzen diren gainontzeko tokietara. Ez arrazoi berezi batengatik, lanean jarraitzeko aitzakia izateko baizik. Nire ustez ez dago beti helburua bilatu beharrik, lanean hasteak ematen dizkizu erantzunak eta bultzatzen zaitu norabide batera edo bestera.

Zer gertatzen da gure



Guztiok dakigunez, gure bi herriotan eta Goierriko gainontzekoetan, Sasieta da zaborra eta poteak jasotzeaz eta hauek Salbatoreko zabortegira eta birziklapen plantetara eramateaz arduratzen dena. Baina zer da Sasieta? Zer gertatzen da gure zaborrarekin?

Sasieta Mankomunitatea Goierri osatzen duten 22 udalerriek sortu zuten 1990ean, Goierriko zaborrei kudeaketa egoki bat emateko eta orduko zabortegi inkontrolatuak desagertarazteko. Sasieta kontrola udalek daukate: herri bakoitzak zinegotzi bat izendatzen du mankomunitatean bere ordezkaria izan dadin, baina 6 herri handienek bi ordezkari dituzte. Erabakiak ordezkarien batzordetan hartzen dira. Eguneroko martxa eta proiektuen garapena, berriz, teknikariek eramaten dute.

Mankomunitatearen lehen eginkizun garrantzitsua Salbatoreko zabortegia irekitzea izan zen: 1991ko martxoaren 5ean (Gipuzkoan hiri hondakinenzako zabaldu den azken zabortegia da). Egun, bertara, 59 herritako zaborra eramaten da:

Goierriko, Debagoienako eta Tolosaldeako herrietan sortzen den zaborra, hain zuzen ere.

Lehendabizi zaborra ondo zapaldu eta txikitzen den bolumena gal dezan eta egonkorragoa izan dadin. Ondoren, zaborra estali egiten da galtzairugintzako zeparekin (eskoriarekin) kamioiak eta ibilgailuak gaintik ondo ibil daitezzen eta, azkenik, eremua ondo bete denean, buztinarekin eta lur beltzarekin estaltzen da landareak eta zuhaitzak landatzeko.

Gaur egundaino, zabortegiaren erdia baino piska bat gutxiago bete da, 420.000 m³: gutxigorabehera 120 igerileku olinpiko betetzea bezainbeste. 7-9 urte inguru barru zabortegia bete egingo da. Etorkizunean zaborren zati bat birziklatu egingo da, gaur bezala baino bide gehiago garatuz, beste zati bat konpostatu egingo da, eta falta den zatiarentzat beste irtenbide bat bilatu beharko da.



Zaila izango da berriro ere zabortegi bat egitea, hauek bete beharreko lege-dia geroz eta zorrotzagoa baita.

Salbaboreko zabortegia ireki zen garaian zabortegiaren aukera zen merkeena, baina hemendik urte batzuetara zabortegiaren kostuak, errausgailu berrien edo sistema modernoenen parekoak izango dira. Dena den, Salbatoreko zabortegia betetzen denean, aukeratzen den sistema aukeratuta ere, zabortegi bat beti beharko da sistema horren hondarrak gordetzeko.

Baina Sasieta Mankomunitateak, Salbatoreko zabortegia kudeatzeaz gain, beste hainbat ardura ere baditu. Birziklapena bultzatu eta antolatzen du (egun zaborraz aparte beste 8 bilketa ditu antolatuta), ingurugiro heziketa kanpainak antolatzen ditu ikastetxeekin, enpresei aholkatzen die bere zaborren kudeaketa egokia antolatzeko eta aurtan Biosasieta planta berria jarri du martxan.

Planta honetan, botatako hondakinen fermentazioaren ondorioz sortzen den gasa energetikoki aprobetxatzen da. Nola? Gasa tximini bertikal batzuen bidez lurrazpitik erakartzen da, zabortegian bertan dagoen plantara eramaten da eta, hemen, gasak duen metanoa motore-alternadore

zaborrarekin?



MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Herri Aldizkaria Otamatz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 72 57 75 telefonora.

Merkea eta ona!



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

batean errekin bezala erabiltzen da elektrizitatea sortzeko eta, ondoren, sareari saltzeko. Planta lanean bete betean jartzen denean, 3.500 pertsonak kontsumitzen duten adina elektrizitate sortuko du.

Biosasieta plantak ingurugiro aldetik abantaila handiak eskaintzen ditu: alde batetik, zaborteziaren desgasifikazio egokia lortzen du eta, bestetik, airera metanoa isurtzea ekiditen du. Metanoak berotasuna bere baitan gordetzen du eta, ondorioz, atmosfera berotzen laguntzen du. Metanoak duen berotzeko ahalmena karbono dioxidoarena baino 62 aldiz handiagoa da eta, gainera, atmosferan 12-17 urte inguru irauten du.

Baina, aipatu bezala, Sasieta, birziklapena bultzatzeaz ere arduratzen da: birziklatzeko gai diren material guztientzat irtenbidea bilatzen eta herritarrak zabor poltsara ahal den gutxien bota behar dutela kontzientziazatzen saiatzen da. Sasieta arduradunen ustez, azken urteotan asko aldatu da goierritarron jarrera. Gehien birziklatzen duten eskualdeen artean gaude, baino horrek ez du esan nahi nahikoa denik. Azkeneko 5 urteetan zaborren igokada handia bat gertatu da eta, birziklapenari dagokionez ere, birziklatu daitekeenaren erdia biltzen dugu.

Oraindik hobetzeko aukera handia dagoenez, Sasieta horretarako baliabideak jartzen saiatuko da: sukaldeko olioaren bilketa antolatzen ari da, hurrengo urteko bukaerarako ziurrenik zabor biltzetaren berritzea izango da (kontenedore guztiak eta bilketa kamioiak aldatu egingo dira) eta, epe luzera, zaborteziaren bukaera aurreikusiz, gure zaborrentzat irtenbide berria bilatu beharko du.

Maiatzean olio bilketa abian jarriko da



Gutako bakoitzak urtean laupabost litro olio zikin sortzen du. Ohituraz, harraskatik behera botatzen dugu eta honek kalte batzuk eragiten ditu: ur zikinaren kainuak ixten ditu, arratoientzako janari da, ibaietako landaredia akabatzen du eta ur-araztegiatan arazoak sortzen ditu. Ohiturak aldatzen ez baditugu, hemendik gutxira, gure etxeetan botatzen dugun olioaren Urretxuko araztegiara iritsiko da eta arazoak sor ditzake.

Hau guztia ikusirik, duela 6 urte, Sasieta elkarteetako, enpresetako jangeletako, tabernetako eta jatetxetako olioak biltzen hasi zen. Baina, olio kontsumoaren hiru laurden etxeetan egiten da. Beraz, Sasieta ezinbestekoa iruditu zitzaion olioaren bilketa herritar guztiei zabaltzea.

Lehendabizi froga bat egin zuen Beasain, Ordizia eta Lazkaon eta, orain, olio bilketa mankomunitateko beste herri batzuetara zabaltzea pentsatu dute (Legazpi, Urretxu eta Zumarragara barne). Olioak hondakin oso zikina denez, bilketa furgoneta batekin egingo da. Herri bakoitzean hileko merkatuegun bat aukeratu da. Egun horretan, furgoneta herriko plazan egongo da goizeko 9etatik eguerdiko 1etara herritarrek eramaten duten olioak jasotzeko. Zerbitzu honetan parte hartzen dutenei gainera oparitzo bat ere emango zaie.

Legazpin bilketa hileko lehenengo ostiralean egingo da udaletxe aurreko plazan. Urretxun hileko lehenengo ostegunean izango da, Gernikako Arbola plazan. Zumarragan, berriz, hileko bigarren larunbatean izango da Euskadi enparantzan. Beraz, lehenabiziko biltzetak egun hauetan izango dira: Urretxun maiatzaren 2an, Legazpin maiatzaren 3an eta Zumarragan maiatzaren 11n. Egun hauetaz gain, beste edozein egunetan ere eraman daiteke olioak Deskargako bidean Sasieta daukan Garbigunera.

Bildutako olioak Arabako Berantevillara eramango da, olioak birziklatzeko eratu den Bionor Transformacion enpresara. Enpresa honek olioarekin biodiesela egingo du. Biodiesela autoetako diesel motorentzat erregaia da. Gasoil arruntarekin nahastuta edo bera bakarrik bota dezakegu autoari motorean inongo aldaketarik egin gabe. Biodiesel honek, gainera, ez dauka sufererik bere konposagaietan. Beraz, bere keak ez du eraginik "euri azidoa" deritzaion kutsaduran. Erregai hau gainera biodegradagarria da %98ko portzentan.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

- MEDIKUNTZA PRIBATUA.
- HORTZ KLINIKAK.
- TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



- BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
- HERIOTZ ASEURUA.
- ISTRIPU ASEURUA.
- BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa



Etz da harrizkeoa mutila hain irrifartsu egotea, Euskal Herriko Itzulia irabazi du eta!
Zorionak Aitor "Kaxero"ri eta Aitor Osari!



Ali, ezin al zenigun argazki hoberik bidali? Argazki honetan Da Vinciren La Gioconda dirudizu!
Zorionak eta ondo ibili!



Aroa, hortza zuriz beterik duzu ahoa! Profidenen iragarki berrirako neska hautatu al zaituzte?
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Edurne, txintxo aurpegia duzu, baina noizean behin haserretu beharra dago. Albokoarekin, adibidez, argazkitik atera nahi zaituelako.
Zorionak!



Bittor eta Eneida, hau bai bikote euskaldun peto-petoea. Urtero-urtero, ekartzen diguten argazkian, euskal jantziekin azaltzen dira. Hauek ez dituzte Zara, Garbera eta antzerakoak behar dotore-dotore joateko! Ea Anesi ere euskaldun jantzia egiten diozuen eta behingoz neskaren bat etxera eramaten duen!
Zorionak!



Irati, badirudi zuk ez duzula zure gurasoen "look"-a atsegin. Zu bezalakoekin euskal ohiturak laister pikutara joango dira!
Zorionak!



Erik, hori da hori irrifarrea! Zuk ere, zure herrialdeko lehendakariak egiten duen moduan, ilea tindatzen al duzu?
Zorionak!



Felix, zu ere argazkietarako posatzen abila zara gero!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Harkaitz, ikusten duzunez zure argazkia gaizki samar atera da. Scanner-ak huts egin digu eta zer egingo zaio bada!
Zorionak!



Iñaki, ze demontre ematen diguzu edateko larunbatetan? Gure amak harra-patzen bazaitu txiki-txiki eginda utziko zaitu!
Zorionak eta ondo ibili!



Unai, zure urtebetetze festara baino hileta batera zoazela dirudi! Alaitu ezazu aurpegia pitin bat, opari ederak jasoko dituzu eta!
Zorionak!



Hau bai baseritar pertxenta! Honelakoekin gu ere joango ginatex baserrira lanera!
Zorionak Itziar eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jon, hori da hori interesgarri aurpegia jartzen duzuna argazkietan! Ez al duzu "casting" batera joatea pentsatu?
Zorionak eta ondo ibili!



Jon, karnet argazkia besterik ez dugu, baina altu samarra zaren susmoa dugu. **Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!**



Jon, Otamotz guztian ez da zu bezain txintxo denik azalduko! Argi ibili ingurukoekin, ez dira fidatzekoak eta!
Zorionak eta ondo ibili!



Jon, aurrekoan hire argazkiarekin kale egin genian, baina oraingoan ondo asko sartu diagu.
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Eskerrak ordenagailuek "copy" eta "paste" komandoak dituzten, bestela oraingoan **zorionak Jon** idazteaz nazka-nazka eginda bukatuko genuke!



Jon izeneko guztiekin behingoz bukatuko dugunean, hurrengoaren izena zein eta **Jone!** Gaurkoan zuekin amesgaiztoak izan behar ditugu!



Josi, hasi al zarete Eitzako festak antolatzen? Ez dadila Txominen Ormaiztegin gertatu zena gertatu...
Zorionak eta ondo ibili!



Julen, hori da hori "katxondea" duzuen Killimatrakakoek! Ez da harrizkeoa, ia astero afarimeriendaren bat egiten duzue eta!



Maddi, zinta buruan eta ibili munduan! Baina ea noizean behin irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Maddi, zuk ere, inguruan duzun beste baten antzera, bihurri aurpegi itzela duzu!
Zorionak eta ea pixka bat txintxoago portatzen zaren!



Maialen, ze demontre egiten duzu eguzkitarako betarreroak jarririta? Egun euritsu haue-tan Kaxiano zenak baino gutxiago ikusiko duzu!



Haurra magalen eta **Mamen** parrez lehertzen!
Zorionak Mamen eta segi horren irrifartsu, baina haurra ondo eutsi ezazu!



Mari Jose, ea inguruan dituzunetako batzuei argazkietan zein irrifartsu atera behar den irakasten diezun!
Zorionak eta segi horren irrifartsu!



Maria Dolores, iaztik hona burua hazi al zaizu? Datorren urtean publizitate modulu bat gorde beharko dugu zuretzat!
Zorionak eta ondo ibili!



Maria Eugenia, oraingoan ere ahoan pastela duzula harrapatu al zaitugu? Zuek bai biziz!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Marisa, hori da hori interesgarri aurpegia jarri duzuna, prentsa arrosakoei eskusibak saltzen dieten horietako dirudizu!
Zorionak!



Mikel, une batetik bestera argazkilariri muturreko bat emateko zorian zaudela dirudi! Gurekin ez zaitetz haserretu behintzat...
Zorionak!



Mila, oraingoan ere erantzun zorrotza botatzen ari zarela dirudi! Ea noiz animatzen zaren eta eztena bertsotan sartzen duzun!
Zorionak!



Miren Gurutze, argazki bat ateratzen dizuten bakoitzean horren serio jartzen al zara?
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Hona hemen zuen helbideen pegatinak pegatzen gaudenean arratsaldea alaitzen digun neskatoa!
Zorionak Mirene eta ea noiz hasten zaren zu ere lanean.



Nagore, Heidi bera ere inbidiaz jota jarriko litzateke zure musugorri hori ikusiko bau!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Naiara, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Oraingoan ere gurasoak beldurrez akabatzen izango dira...
Zorionak eta ondo ibili!



Nekane, kilometroak 2002 dendako bezeroei ere horrela begiratzen al diezu? Uxatuko dituzu...
Zorionak eta kamiseta asko saldu!



Oihana, Luis Maria Ansonen zuzentzen duen lehiaketa horretan iruzietakoa dirudizu!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Pablo, zure ezkontza eguneko argazkian sikira irrifarre egingo ote duzu... Urtero serio-serio azaltzen zara...
Zorionak eta ondo ibili!



Rosa Mari, txanponen bat lurrera erori zaizu ala lokartzen ari al zara? Ea argazkilariri arreta handiagoa jartzen diozun...
Zorionak eta ondo ibili!



Sergio, gazteleraz "a mal tiempo, buena cara" esaten dute eta eguzkia ikusi bitartean hori egiten saiatu beharko genuke!
Zorionak!

Kirolez kirol elkarrekin

Aitor Alberdi eta Jon Azpiazu, elkarrekin kirol ibilbide benetan berezia betetzen ari dira. Biak Urolako gazte taldeetan atezainak izan ziren, baina duela urte batzuk futbola utzi eta txirrindularitzan hastea erabaki zuten. Afizionatu mailako txirrindularitzak eskaintzen ziena ez zitzaien gustatu eta, iaz, duatloia egitea erabaki zuten (korrika eta txirrindularitza uztartzen dituen kirola, hain zuzen ere). Lasterketetan ere ezin elkarrengandik urrundu eta, Euskal Zirkuituan lehenengo bi postuak lortu zituzten.



Zerk bultzatu zintuzten futbola utzi eta txirrindularitzarekin, edo beranduxeago duatloiarekin hastera?

Aitor: Beste kirolek ez daukaten askatasuna ematen dizu txirrindularitzak. Aldi berean, entrenamenduak ez daude hain finkatuta... zeuk dena antolatzen duzu. Egia da entrenadorea eduki dezakezula, baina azkenean zeure erara moldatzen duzu prestaketa guztia.

Entrenatzerako orduan, plangintza bereziren bat jarraitzen al duzue?

Aitor: Ramon Elkoro-k ezartzen digu jarraitu beharreko prestakuntza. Bera prestatzaile fisikoa da, eta jubenilak ginetik gure prestakuntzaz arduratzen da.

Jon: Gustura gaude berarekin.

Zer ezberdintasun dago duatloieko eta txirrindularitzako entrenamenduen artean?

Jon: Normala den bezala, txirrindularitza bazatoz, apur bat gehiago kostatzen zaizu txirrindua uztea. Baina beno,

segituan ohitzen zara, egun batean txirrindua, eta bestean korrika, egun batean ...

Aitor: Konbinaketa ere egin daiteke: 2 ordu bizikletaz eta 40 minutu korrika. Duatloieko entrenamenduak, atleta eta txirrindulari baten entrenamenduen konbinaketa dira.

Duatloian hasi zinetenetik, txirrindularitza guztiz alboratu al duzue?

Jon: Ia-ia. Izan ere, duatloi denbora martxoan hasi eta ekainean amaitzen da. Horrez gain, txirrindularitza amateurrean dagoen panorama ikusita, ondo egin dugula uste dut. Dena den, ekainetik aurrera AEG taldearekin arituko naiz amateurretan. Hauek gainera, ez didate inongo trabarik jarri duatloian ere lehiatzen dudalako.

Aitor: Jonek esan duen bezala, amateurretan dagoen panorama ikusi behar da. Maila honetan jada, ez daukazu txirrindularitzarekin gozatzeko aukerarik. Nik, 3 lizentzia atera ditut aurtengoan: alde batek krosean aritu naiz negu partean; besteik, duatloia dago; eta azkenik, triatloia

ere probatu nahi dut.

Jon: Amateurretan, lasterketa amaitzearen baduzu konforme zaude; are gehiago, pozik zaude. Duatloian, aldiz, lasterketan lehiatzeko aukera duzu.

Partehartzaile kopurua urriagoa al da proba hauetan?

Aitor: Ez, inondik ere. Duatloian ere 150-170 pertsonen parte hartzen dute. Tartean, txirrindularitza amateurrean ondo ibiltzen diren 30 pertsona daude, eta hauek ia-ia profesionalen antzera ibiltzen dira. Honen eraginez, lasterketak asko mugatzen dira, berberak baitira beti muturrean dabilzanak.

Jon: Hau guztia gutxi balitz, segituan erretiratzen zaituzte. Are gehiago, karrera haseran mendate bat pasa beharra baldin badago, orduan ezin dituzu 50 kilometro ere bete ...

Zein egitura du duatloi proba batek?

Jon: Hasteko, 7-10 kilometro inguru egiten ditugu korrika; ondoren,

35-40 kilometro gupil gainean; eta amaitzeko, beste 3-6 kilometro korrika berriro.

Aitor: Azken zati honetan, lasterka egiten dugun lehen saio horren erdia egiten dugu; hau da, ibilbide bati bi bira eman baldin badizkiogu lehen saio horretan, bigarreanean buelta bakarria ematen diogu.

Jon: Era berean, "Duatlon Sprint" izeneko lasterketak ere badaude. Hauetan, 5 km. (lasterka), 20 km. (bizikletaz) eta 2-5 km.-ak izaten dira distantziak. Erosoagoak izaten dira.

"Afizionatu mailako txirrindularitzan, ez daukazu txirrindularitzaz gozatzeko aukerarik"

Nork korritzen ditu gisa honetako lasterketak?

Aitor: Muturrean ibiltzen den jendea amateuretatik etorritakoa da, amateurretan ondo ibilitakoak gainera.

Jon: Amateurretan lehiatzeari utzi ondoren, duatloiean hasten dira, eta noski, oso ondo moldatzen dira.

Aitor: Era berean, kirol honek "engantxatu" egiten du. Batzuk, lasterketaren bat ikusi ondoren, beren herriko proban partehartzera animatzen dira, eta ondoren zaletu egiten dira. Horren ondorioz, asko eta asko, prestatzen eta lehiatzen hasten dira.

Zein mailatan lehiatzen duzue?

Jon: Maila ezberdinak daude, baina guztiok ibilbide bera egiten dugu. Mailak betikoak dira: Seniorrak, 23 urte azpikoak, juniorrak, beteranoak eta emakumeak. Aurten, 23 urte azpiko tarte horretan sartzen gara, iaz juniorrak ginen oraindik.

Lasterketek elkarrekin loturarik ba al daukate?

Aitor: Bai. Guk, Euskal Zirkuituan korritzen dugu. Hau, martxo eta ekaina bitartean ospatzen diren 12 probek osatzen dute, eta bakoitzean lortutako puntuen arabera, akaberan sailkapen orokorra egiten da.

Jon: Hauetako gehienak Gipuzkoan izaten dira, hala nola: Intxaurren, Oñatin, Azkoitian, Eibarren, Elgoibarren...

Aitor: Bizkaian bat korritu dugu. Baita Gasteizen, Arbizun...

Euskal Zirkuitutik gain, beste nonbaiten lehiatzen duzue?

Jon: Txapelketa hau amaituta, ekainean, Nafarroako Txapelketa hasiko da. Hau, 4 probek osatzen dute, baina Euskal Zirkuitutik at dago.

Aitor: Dena dela, duatloiearen denboraldia amaitzearekin batera, triatloiearena hasten da. Lehengo urtean ez nintzen animatu, baina aurtengoan, parte hartzea erabaki dut. Alabaina, azken honek ez dauka zerikusirik duatloi txapelketarekin; partehartzai-leak ere

ezberdinak dira, nahiz eta batzuk duatloiean aritzen direnak izan.

Zein emaitza lortu zenituzten iaz?

Aitor: Junior mailako Euskal Zirkuitua nik irabazi nuen; Jon, bigarren tokian geratu zen. Txapelketa oso polita korritu genuen biok.

Jon: Egun bakar batean korritzen den Euskadiko Txapelketan ere emaitza onak lortu genituen: Nik, distantzia ertaineko proba irabazi nuen, eta Aitorrek, aldiz, Dutloi sprint-a. Gure lehenengo urtea izateko, oso gustura aritu ginen.

Aitor: Espainiako txapelketan ere 30 lehenengoan artean bukatu genuen biok.

Zein da zuen helburua aurtengo denboraldirako?


Aitor: Gure helburua pixka bat aurrerago ibiltzea izango da, ez geure mailan, orokorrean baizik. Lehengo urtean, bazegoen segituan aurrera egiten zuen 15 pertsonako talde bat; gu, ordea, bigarren taldean geratzen ginen beste 15-20-ekin. Gure helburua, lasterketaren muturrean ibiltzen ziren horien mailara ailegatzea da. Aurten izan diren bi lasterketetan lortu dut aurreko talde horretan sartzea, ea horrela jarraitzen dudana. Dena dela, lehiakortasuna handia da.

Jon: Ni, ordea, min hartuta nago.

Eta zein da zuen helburua epe luzera begira?

Aitor: Oraindik gazteak gara, baina nire asmoa egunen batean Iron Mana, munduko triatloi gogorrena, egitea da.

Jon: Niri ere asko gustatuko litzaidake.





Gorka Quevedo

Gorkak, Ikastolan eta Lizeoan aritu ondoren, Leioan kazetaritza ikasketak egin zituen. Oso gaztetik argi zuen kazetaria izan nahi zuela: "Txikitan Realeko jokalaria izan nahi nuen, baina dohainik ez nuela ikusi bezain pronto kazetaritza ikastea erabaki nuen. Leioan oso gustura aritu nintzen eta gauza asko ikasi nituen, batez ere ikasketetatik kanpo".

Gorkak, egun, Euskaldunon Egunkarian lan egiten du eta Urretxuko Kaixo aldizkarian kolaboratzailea da. UTBn ere aritua da, futbol partiduak ematen. Ez zuten fitxaje makala egin! Futbolaz eta saskibaloiaz Gorkak bezainbeste dakien jende

gutxi egongo da Urretxu-Zumarragan. Kirolzaletasuna aitarengandik omen datorkio. "Aita aspalditik Realeko bazkidea eta Urolako presidentea ere izan zen. Hala izanik, ez da harritzekoa ni kirolzalea izatea".

Aitaren aldetik kirolzalea bada, amaren aldetik musikaria da. Izan ere, Inazio Barrio atabal egile handia Gorkaren aitona da. Gorka, berriz, txistularia dugu. "Aitona oso harro dago bere bilobez: hiru biloba ditu eta hiruok musikariak gara. Ni oso txikitan hasi nintzen txistua jotzen eta 10 bat urte daramatzat Antziñako Ama Txistulari Bandan. Onena bandakideen artean dugun giroa eta Josu Aztiria eta Mikel "Mordo"-rekin egindako parrandak dira. Baita Santa Isabel egunean jotzea ere, noski!".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Gipuzkoako ume guztiek bezala, Realeko jokalaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin egotea eta kirola egitea.

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

-Gustuko futbolaria?

Valeron eta De Pedro.

-Clemente ala Toshack?

Toshack.

-Gustuko saskibaloia jokalaria?

Michael Jordan eta Tracy Mc Grady

-Athletic ala Real Madrid?

0-0.

-Juanan Larrañaga ala Michel?

Juanan Larrañaga.

-Jose Angel De la Casa ala Pedro Mari Goikoetxea?

Jon Balentziaga, "Balentxi".

-UTB ala Kaixo?

Biak.

-Saskibaloia ala futbola?

Hori aitaren eta amaren artean aukeratu beharra bezala da niretzat.

-Egunkaria ala telebista?

Egunkaria nahiago dut, arreta jartzera behartua baitzau-
de.

-Parranda egiteko toki bat?

Urretxu eta Lizarra.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Ez du garrantziarik.

-Egindako azken oparia?

CD batzuk.

-Eta jasotakoa?

Pelutxezko oso tximu polita.

-Data bat?

Santa Isabel eguna eta 1995eko maiatzaren 28a.

-Neska eta mutil izen bana?

Neskenak Maddi eta Janire. Mutilena Jon.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Lana dela eta, 10-12 bat begiztatzen ditut egunero, ba-
tzuk gustura eta beste batzuk ez hainbeste. ABC irakur-
tzen oso ondo pasatzen dut, TMEO bezala, umorezko
fanzine bat baita.

-Gustuko telebista saioa?

The Simpsons.

-Bereziki gorroto duzuna?

Maria Teresa Camposen tertulia eta bere tertulianoak.

-Liburu bat?

Noam Chomsky-en "Hablemos de terrorismo".

-Filme bat?

Montty Phyton-en "La vida de Brian".

-Gustuko abestia?

Mikel Laboaren "Negu hurbilak".

-Soinu bat?

Mendian lo egin ondoren, esnatzen zarenean entzuten
duzuna: erreka ura, txoriak...

-Usain bat?

Kafe xigortuarena.

-Janari bat?

Amak prestatzen duen arrozesnea eta izeba Arantxak
prestatzen duen gazta tarta.

-Ura ala...

Always beer.



sukaldeko olioa

birziklitzeko garaia ere heldu da!

Maiatzatik aurrera
Etor zaitez hilero gure furgonetara erabilitako sukaldeko olioa ekartzera.



URRETXU	ZUMARRAGA	LEGAZPI	CARREFOUR Olaberria	MAXI-EROSKI Ordizia
Hileko lehenengo ostegunetan 9:00-13:00	Hileko bigarren larunbatetan 9:00-13:00	Hileko lehenengo ostiraletan 9:00-13:00	Hileko lehenengo larunbatetan 16:00-20:00	Hileko lehenengo larunbatetan 10:00-14:00
Merkatuko plazan	Merkatuko plazan	Udaletxeko plazan	Aparkalekuan	Aparkalekuan

► Bilketa-egutegiaz kanpo olioak noiznahi jasoko da Garbigunean ere.
Helbidea: Deskargako bidea, GI-632 errepidea - 14,4 Km. - Tfoa: 943 72 39 53

Oharra Ez da jasoko autoetako olio zaharrik

► Jatetxeek eta tabernek, bilketa berezia egiteko eska dezakete telefono honetara deituta: 943 47 23 35 (Ecogras)

Eta gainera, zure laguntzagatik oparitxo bat ere jasoko duzu!



Argibide gehiago 943 16 15 55, Sasieta Mankomunitatean

Jose Mari Iparragirre B.H.I.



Erdi mailako heziketa zikloa Erizain laguntzailea

Osasun familia, A-D ereduetan
Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria
Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)
Lanbide aukerak:

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

Izen-ematea: maiatzaren 1etik 24ra arte

J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g., Urretxu

Telefonoa/faxa: 943 72 14 13-943 72 14 03


Posta elektronikoa: jniparragirre@edunet.es



IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU